| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/06/22<br>**Fecha**: 22/06/2009 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Kultur Etxe Zaharra<br>**Lugar**: Kultur Etxe Zaharra |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udala/ Ayuntamiento:***

- Javier Azpitarte (Alkatea / Alcalde)
- Gorka Camara (Zinegotziak/Concejales)

***Gizartea/Sociedad:***

1 herritar / 1 ciudadanos/as

***Aholkularitza /Consultora:***

- Juan Mª Lersundi , Amaia Abanzabalegi (BITAKA)

| **1. Saludos y agradecimientos** | **1. Aurkezpena eta esker onak** |
|---|---|
| Se da la bienvenida y agradece a todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de las Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br><br>Coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar este segundo foro de participación ciudadana para debatir las propuestas y para que puedan ser sometidas a un contraste con las opiniones y la visión de la ciudadanía en general. Una vez terminado el proceso de participación, las aportaciones se tendrán en cuenta en el Plan de Acción. | Ongietorria eman zaie bertaratuei eta aldi berean eskerrak eman zaizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu da Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren planaren ekintzen proposamenak aurkeztu diren foro honetan.<br><br>Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da bigarren foro hau antolatuz. Denen artean ekintzen proposamenen inguruan eztabaida burutzea da bigarren foro honen helburua.<br>Partaidetza prozesua bukatu ostean, jasotako ekarpen guztiak Ekintza Planerako kontuan hartuko dira. |
| **2. Presentación del borrador de Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado** | **2. Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
| Los técnicos de Bitaka realizan la presentación del borrador de Propuesta de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: las conclusiones principales extraídas del diagnóstico, las proyecciones de futuro en materia de movilidad, los objetivos que se han tenido en cuenta a la hora de definir el borrador de actuaciones y las propuestas de actuaciones concretas, en fase de borrador, | Bitakako teknikariek Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Ekintzen Proposamenak zeintzuk diren azaldu dute, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: diagnosiaren ondorio nagusiak, etorkizunera begira mugikortasunaren inguruan dauden plangintzak, ekintzen proposamenen zirriborroa egituratzekoan kontutan izan diren helburuak eta Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planak izango dituen ekintzen proposamen zehatzak, zirriborro eran. |

| | |
|---|---|
| del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que las propuestas se recogen en un documento provisional, que se espera que sea completado con las aportaciones realizadas por la ciudadanía en los foros de participación ciudadana en los municipios del ámbito de estudio.<br>Dado el número de asistentes, se opta por realizar una presentación abierta y comentada por los/las mismos/as y posteriormente iniciar un debate. | Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Ekintza proposamenen behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatua izango da. Horretarako azterketaren eremuko herri guztietan partaidetza foroak burutuko dira.<br>Bertaratutako jende kopurua kontuan izanda, aurkezpen irekia egitea proposatu da, bertaratuen ekarpenetara irekia, eta gerora eztabaida bat egin da aurkezpenaren inguruan. |
| **4. Debate sobre la presentación** | **4. Aurkezpenari buruzko eztabaida** |
| A continuación se exponen los temas tratados en el debate sobre la presentación de la Propuesta de Actuaciones:<br><br>▪ **Reflexiones sobre el PTP del área funcional del Duranguesado y los demás instrumentos de planificación:**<br>- Se duda sobre si las acciones expresadas en los diferentes instrumentos de planificación tienen como objetivo la sostenibilidad de acuerdo con la presentación realizada. Ante esta cuestión, la técnicos responden que la presentación se refiere a que todos los instrumentos citados tienen dentro de su introducción o epilogo la sostenibilidad como objetivo.<br>- Actualmente, el PTP está en aprobación inicial y el documento se ha basado en una recogida de datos realizada hace 10 años y resulta algo anticuado y anacrónico. Además, dentro del procedimiento del PTP tenía que haber existido un proceso de participación que recogiese la opinión de los Ayuntamientos y la ciudadanía.<br>- Se comenta que Berriz realizó una alegación al PTP que todavía no ha tenido resolución. En dicha alegación, entre otras muchas cuestiones, se solicitaba que se realizase una variante de la N634 para que Berriz pudiese convertir en calle la parte de la N634 que transcurre por buena parte de Berriz. De este modo, se podría pacificar dicha sección vial mediante la instalación de diferente pavimento (el adoquín) y transformarlo en una zona 30.<br>- El PTP plantea que la duplicidad de las vías sea entre Bilbao hasta Lebario y desde Zaldibar hasta Donosti, dejando a Berriz sin duplicidad de vías.<br>- Además, se comenta que dentro de las actuaciones | Ekintzen Proposamenen aurkezpenari buruz egindako ekarpenak azaltzen dira jarraian:<br><br>▪ **Durangoko Alde Funtzionalaren LZPa eta beste planifikazio tresna batzueri buruzko hausnarketa:**<br>- Egindako aurkezpenean azaltzen diren ondorioak kontuan izanda, planifikazio tresna ezberdinek azaltzen duten iraunkortasun helburu horiek kolokan jarri direla esan da. Auzi honi dagokionez, teknikariek zera erantzuten dute, aipaturiko plangintza-tresna horiek sarrera edo epilogotzat hartu direla azterketan, iraunkortasunerako helburu hori azpimarratzeko.<br>- Gaur egun LZPa hasierako onarpen fasean dago, eta dokumentu hau duela 10 urte jasotako datuetan oinarritua dago. Beraz, partee-hartzaile baten ustetan, zaharkitua dago LZPa, eta anakronikoa izan daiteke. Gainera, LZPa eratzearen prozedura horretan partaidetza prozesurik ez zen egon, Udalen eta herritarren iritzia beraz, ez zen jaso.<br>- Berrizek LZPari dagokionez alegazio bat aurkeztu zuela esan da. Gaur egun alegazio horrek ez du Aldundiaren erantzunik jaso. Alegazio horretan, N634 errepidearen saihesbide bat eskatzen zen, Berriz zeharkatzen duen zati hori kale bihurtu ahal izateko. Zeharbide bilakatzean, sekzio hortan trafikoaren lasaitze neurriak ezartzea ahalbidetuko litzateke, zoru desberdina ezarri (galtzadarria edo adokian) eta bide hau 30 gunera eraldatuz.<br>- Bestetik, LZPak trenbidearen bikoizketa Lebariorarte aurreikusten du, Berriz eta Zaldibar (Donostiararte) bikoizketa hau gabe utziaz.<br>- Gainera, eta A8an hirugarren erreia ezartzeari dagokionez, hirugarren errei hau Gerediagararte zabaltzea aurreikusten da, Berriz hirugarren errai gabe utzita. |

previstas para la A8 está la construcción del tercer carril hasta Gerediaga, dejando sin 3 carriles a Berriz.

- En la parte de Lebario, la red ferroviaria transcurrirá paralela y cerca de la N634.
- En el estudio no se incluyen reflexiones relativas a la Y Vasca por tratarse de un estudio relativo a la movilidad entre municipios de la Comarca.

- Teniendo en cuenta que el periodo de alegaciones finalizó el año pasado, es muy probable que el presente Plan de Movilidad pierda mucho potencial. Para que este tipo de acciones puedan ejecutarse es preciso que se prevean en el PTP, y por ello, si no aparecen en el PTP existen grandes probabilidades para que las acciones propuestas no se ejecuten. Por tanto, existen muchas probabilidades que este estudio y sus medidas se queden en un cajón si no se incluyen dentro del PTP.

- **Transporte público: Autobús y transporte a la demanda:**

- Se ve necesaria la implantación de un servicio de autobús entre Elorrio y Berriz destinado a la gente que trabaja y estudia en Mondragón y en Elorrio. Además, existen muchos/as ciudadanos/as de Elorrio y Mondragón que utilizan dicha carretera para ir a la costa.
- Se reclama que Berriz tenga transporte a la demanda dado el alto número de barrios que existen en el mismo.
- En Garai sería más razonable que se implantase un servicio a la demanda y no que un autobús de 70 plazas haga su servicio vacío con un horario que no responde a las necesidades de la ciudadanía.
- Hoy en día, parece que se penalizan los transbordos en transporte público, por ello la tarificación del transporte público debería de unificarse.
- Las tarifas del transporte público deberían de ser más sociales y económicas para animar su uso.

- **Carriles ciclables y carriles cívicos:**

- No se ve muy viable y se piensa que tendrá poca utilización el carril bici que se plantea en el estudio implantar entre Elorrio y Berriz. Si bien, se ve más posible la implantación de una línea de autobús entre Elorrio y Berriz destinado a la gente que trabaja y estudia en Mondragón y en Elorrio.

- Lebario aldean trenbideak N634aren ibilbide paraleloa izango du.
- Foroan egin den azterketan faltan botatzen da bestalde AHTari buruzko hausnarketaren bat. Durangaldean eragina izango duen azpiegitura izanik, mugikortasun azterketa baten aztertu beharreko gaia dela esan da.
- Alegazioak egiteko tartea iaz amaitu zela kontuan izanda, aurkeztu den Mugikortasun Planak potentzialitate haundia galduko duelako kezka azaldu da. Ekintzen proposamenak bideratzeko beharrezkoa omen da LZPan ekintza hauek txertatzea. LZPan ez badira ageri, ekimen hauek ez exekutatzeko arrisku nabarmena omen dago. Beraz, LZPan ez badira txertatzen, egindako azterketa eta proposatutako ekimen eta ekintzak kaxoi baten gelditzeko aukera edo arriskua nabarmendu da.

- **Garraio publikoa: autobusa eta eskariaren araberako garraioa:**

- Elorrio eta Berriz bitarteko garraiobide publikoa ezartzea beharrezkoa dela esan da. Erabiltzaileei dagokionez, langileak eta bai Arrasaten bai Elorrion ikasten duten ikasle kopurua haundia dela aipatu da. Gainera, ba omen dago kostaldera joateko asmoz errepide hau aukeratzen duten jende kopuru ugaria.
- Berrizek eskariaren araberako garraioa izan dezala ezinbestekoa dela esan da, auzune asko dituelako, eta komunikazio-bide bat ezartzea garrantzitsua delako.
- Garai da hizpide jarraian. Gaur egun duten autobus zerbitzua barik (70 plazatako autobusa doa bertara), eskariaren araberako garraiobidea behar lukeela izan aipatu da. Gaur egun ez da herritarren beharrizanei erantzuten ordutegi eta maiztasunari dagokionez.
- Badirudi gaur egun garraiobide publiko batetik bestera aldatzea zigortuta dagoela, horregaitik garraio publikoko tarifak bateratu beharko lirateke.
- Garraio publikoaren tarifak sozialagoak behar dute izan, eta ekonomikoki merkeagoak, bere erabilera sustatzeko.

- **Hiri-ardatzak eta bizikleta erreiak:**

- Elorrio eta Berriz tarterako proposatzen den bizikleta erreiari buruz, ez da oso bideragarria bertaratutakoen ustetan. Antza, erabilpen gutxi izango luke. Bestalde bi herri hauen arteko konexioa garraio publikoz egitea beharrezkoa dela aipatu da, Elorrion lan eta Arrasaten lan eta ikasten duten pertsonentzat

- Tampoco se ve muy viable el carril que se ha planteado entre Santiago y Atxondo en cuanto a la gente que pueda utilizarlo por razones de trabajo.
- Se cuestiona que el uso de la bicicleta ideal futuro previsto "15%" que es excesivo dadas las costumbres actuales y a la orografía y climatología del Duranguesado.
- Para que los carriles bici sean utilizados para ir a trabajar las empresas tendrán que habilitar en sus dependencias vestuarios y aparcabicis.

▪ **Movilidad al trabajo:**

- Se ve posible que los Ayuntamientos incidan en el impuesto relativo a las plazas de aparcamiento en las empresas para disuadir de la utilización del vehículo privado.
- Es necesario que se ejecuten medidas efectivas para que los/las trabajadores/as vayan en transporte público. (Por ejemplo: Reducir el coste económico de los billetes y adecuar los horarios del transporte público a los horarios laborales.)

▪ **Implicación institucional:**

- Se comenta que la ejecución de muchas de las acciones descritas en el estudio no están en manos de la Mancomunidad y los Ayuntamientos de la Comarca y que son principalmente responsabilidad de la DFB y el Gobierno Vasco. La consultoría expone que el presente estudio pretende ser un instrumento técnico avalado por la participación ciudadana para poder reclamar las necesidades y acciones detectadas en la Comarca en las instituciones públicas pertinentes.
- Se solicita que las políticas tendrían que ser más uniformes y de acuerdo con visiones en pro de la sostenibilidad, ya que en ocasiones se ven contradicciones entre diferentes administraciones. (Por ejemplo: Que se concedan ayudas económicas para la compra de vehículo privado).
- La consultora sugiere que para que las medidas expresadas en el Plan de Movilidad se ejecuten es preciso que los municipios firmen un Pacto político en pro de la movilidad sostenible. Posteriormente se tendrán que formar mesas de trabajo y debates sobre el Plan para madurarlo y para que el compromiso de los municipios sea lo más firme posible.

Elorrion lan eta Arrasaten lan eta ikasten duten pertsonentzat bereziki.

- Atxondon Santiago inguruan planteiatzen den trazadura ere ez omen da bideragarria ikusten, lanerako joan-etorrietarako ez delako erabiliko.
- Bizikletaren erabilpena %15ekoa izan daitekeela esaten du azterketak. Bertaratuen ustetan, helburu hau lortzea zaila izango da, Durangaldeko orografia eta klima dela eta.
- Bizikleta lantokietara joateko erabilia izan dadin beharrezkoa izango da behar bezalako bizikleten aparkalekuak eta aldagelak ezartzea.

▪ **Lanarekin loturiko mugikortasuna:**

- Udalek aparkaleku kopurua dela eta zergen inguruan badutela zereginik aipatu da, enpresek joan-etorri iraunkorragoak sustatu ditzaten persuasio neurri bezala.
- Eraginkorrak diren neurriak ezarri behar dira langileak lanpostuetara garraiobide publikoaren bitartez joatea ahalbidetzeko. Adibidez, salneurriak murriztea eta ordutegiak lanorduetara egokitzea.

▪ **Erakundeen inplikazioa**

- Azterketa honek proposatzen dituen hainbat ekimen ez omen daude ez Udalen ezta Durangaldeko Amankomunazgoaren esku. Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren esku omen dago ekimen hauen bideragarritasuna. Aholkularitzako teknikarien esanetan, azterketa honen helburu nagusietako bat lan-tresna bat edukitzea da, herritarren partaidetzarekin aberasturiko lan-tresna bat. Tresna honek Durangaldean dauden beharrizanak dagokien erakunde publikoen aurrean defendatu ahal izateko balio behar du. Aurrerantzean eskakizunak egin ahal izateko balio behar du.

- Erakunde desberdinek iraunkortasunaren aldeko ikuspegi berbera izan beharko lukete, eta ezartzen diren politikak bateratuak izan beharko lirateke. Askotan administrazio ezberdinetan kontraesanak aurkitzen ditugu zentzu honetan (Ibilgailu pribatua erosteko diru-laguntzak eskaintzea, esaterako).

- Aholkularitzak Mugikortasun Planak proposatzen dituen ekintzak aurrera eramateko Udalek iraunkortasunaren aldeko paktu politiko bat sinatzea beharrezkoa dela esan du. Ondoren lantaldeak osotu beharko dira, Planari buruz eztabaida sakonago bat egin eta Udalen konpromisoa ahalik eta sendoena izan dadin.

| | |
|---|---|
| posible. | |
| **4. Agradecimientos y despedida** | **4. Agurra eta eskerrak** |
| Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se levantará el acta de la reunión mantenida, posteriormente se enviará al Ayuntamiento por último se pondrá a disposición de toda la ciudadanía.<br><br>Así mismo, se informa a las personas asistentes que al finalizar todo el proceso participativo en los municipios que son objeto del estudio, se hará llegar un documento con todas las conclusiones a todas las personas que han participado.<br><br>Por último, se agradece a todas las personas su presencia y participación en este Foro. | Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, burututako batzarraren akta egingo dela azaldu da. Udalera onartzeko bidali eta onartuta denean herritarrei zabaldua izango da akta hau.<br><br>Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Partaidetza prozesu honetan aztergai izan diren herrietan eginiko foroetan herritarrek egindako ekarpenarekin txosten bat egiteko asmoa dagoela azaldu da. Txosten hau parte hartu duten pertsonei luzatzeko asmoa dagoela esan da.<br><br>Azkenik, bertaratuei foro honetan izan duten parte-hartzea eskertu zaie. |